# IES **MURGIA** BHI

## I.E.S. MURGIA B.H.I. sortu zeneko 25. urteurrena

Egungo demokrazia garaiaren hasieran bi pertsona oso garrantzitsuak izan ziren ikastetxe honen sorreran: batetik Ignacio Oregi Zuiako alkate jauna eta bestetik Pedro Fernández Casanova Murgiako Pauldarren Superiorra, ikastetxearen lehen zuzendaria izandakoa. Biek zuten helburu berbera, alegia, Zuiako eta ondoko bailaretako gazteei, Oinarrizko Irakaskuntza Orokorra amaitzean, beren ikasketekin aurrera jarraitzeko aukera ematea eta, bide batez, hezkuntza-eskaintza zabaltzen laguntzea, garai hartan guztia Vitoria-Gasteizen biltzen baitzen eta, gogora dezagun, orduan desplazamendua oztopo handia zela ikasleentzat.

Horrela bada, 1979ko udazkenean, Aita Pauldarren egungo eraikin berean, ikastetxeak bere ibilbideari ekin zion Lanbide Heziketako (LHko) I mailako Nekazaritza, Administraritza eta Metalaren adarretako irakaskuntzan hasiz, ikaslerik gehienen jatorria baserri mundua zelarik.

Hasiera horren ondoren, gazteak lan-mundura hurbildu eta inguruko udalerrietan nagusi ziren sektoreetan aukera izan zezaten, ikastetxeak bere hezkuntza-eskaintza zabaldu egin zuen, 1984an LHko II mailako Nekazaritza eta Abeltzaintza espezialitatea eta 1987 Basogintza espezialitatea eskainiz. Ordutik aurrera nekazaritzako espezialitate horiekin bakarrik jarraitu du aurrera ikastetxeak. Hezkuntzaren erreformaz geroztik basogintza eta ingurunearen alorreko lanbide-heziketara mugatu du ikastetxeak bere eskaintza erdi mailako "Baso-lanak eta natura-ingurunearen zaintza" delako zikloa eta "Natura eta paisaia baliabideen kudeaketa eta antolamendua" izeneko goi mailako zikloa emanez.

Gainera, azpimarratu beharra dago, Erkidegoan gure hezkuntza-zentroa dela halako irakaspen espezifikoak ematen dituen Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxe bakarra.

## 25º Aniversario de la creación del I.E.S. MURGIA B.H.I.

En el albor de la actual era democrática, dos personas resultaron claves para la creación de este Centro de Formación Profesional. Por un lado, D. Ignacio Oregi, Alcalde del Ayuntamiento de Zuia y por otro D. Pedro Fernández Casanova, Superior de los Padres Paules de Murgia y primer Director que tuvo el Centro. El objetivo común de ambos, era que la juventud, tanto del Valle de Zuia, como de los limítrofes, tuvieran la posibilidad de continuar sus estudios, una vez superada la Enseñanza General Básica, y de paso, contribuir a diversificar la Oferta Educativa, casi limitada a Vitoria-Gasteiz, pero con el handicap en esa época del desplazamiento.

Así, en Otoño de 1979, en el mismo edificio actual, propiedad de los Padres Paules, comenzó su andadura este Centro con las enseñanzas en F.P. I de las Ramas Agraria, Administrativo y Metal, y básicamente con todo el alumnado de procedencia rural.

Tras este comienzo, intentando dar salida e integración laboral dentro de los sectores dominantes en estos Municipios, en 1984, se amplió la oferta educativa en F.P. II, Especialidad Agropecuaria y en 1987 con la Especialidad Forestal, quedándonos a partir de esta fecha sólo con estas Especialidades de la Familia Agraria. Tras la reforma educativa, nuestra oferta educativa se centra únicamente en el campo profesional Forestal y Medio-Ambiental, impartiendo el Ciclo Formativo de Grado Medio "Trabajos forestales y de conservación del medio natural", y el Ciclo Formativo de Grado Superior "Gestión y organización de los recursos naturales y paisajísticos".

Es de reseñar, que somos el único Centro Formativo de esta Comunidad, dependiente del Departamento de Educación que imparte estas enseñanzas tan específicas.



Gure kokaleku aparta -Gorbeiako Parke Naturala- inguru paregabea da gure espezialitatea lantzeko, horregatik ez da harritzekoa gure ikasgelarik onena ikastetxetik bost minutu eskasera, naturaren erdi-erdian, egotea. Gazteriarengan hain errotua dagoen ingurumenaren ezaugarri hori eta zentroaren tamaina txikia –elkarbizitza estua ahalbidetzen duena- dira ikasle-eskolaren arteko harreman estuaren gakoa, horregatik zentroa oso hurbilekoa eta berezia da berori eratzen dugun guztiontzat.

Hogeita bost urte hauetan gauzak izugarri aldatu dira, teknologia berriak eta zentroa gestionatzeko era ezberdinak indar handiz sartu baitira. Azken alor horretan, etengabe egokitu eta berritu beharrean aurkitzen garela jakinik, 1997an lehen urratsak eman genituen zentroaren gestioa kalitatearen printzipioetara egokitzeko, ISO 9002 araua betetzen hasiz. Hiru heziketa-urte haiek ahaztezinak izango dira guretzat: SAREKA enpresako aholkularien laguntza izan genuen (eskerrak Luis Mª, Mertxe eta Rosanari) eta sareko beste zentro batzuekin (Gamarra, Zaraobe eta Eraikuntzakoarekin, haren lehen urratsetan) lankidetzan aritu ginen, ordutik hona elkarrekin dugun harremana oso emankorra bilakatu delarik. Harreman eta lankidetza horren ondorioz 2000 urtearen amaieran ISO 9002 ziurtagiria lortu genuen AENORren eskutik. Geroago, eta kalitatea lantzeko lehen fase hori gaindituta, ISO 9001:2000 egiaztagiria lortu genuen 2003an. Azkenik, eta kalitatearen gestioarekin dugun konpromisoan sakonduz, buru-belarri sartuta gaude EFQM proiektuan, zilarrezko Qa lortzeko helburuarekin.

Hogeita bost urte hauek, beraz, bi hitzetan laburbildu daitezke: ESFORTZUA eta DEDIKAZIOA. Aurrerantzean ere horiexek izango dira lanerako gure tresnarik garrantzitsuenak eta ahalegina egingo dugu gainera, hezkuntza alorrean ezezik, gizarte eta lan alorrean ere erreferente izaten.

Zuzendaria: Mikel Agirre Jauregi Jauna

Nuestra situación privilegiada en pleno Parque Natural de Gorbea, nos da un marco incomparable para nuestra especialidad, por esto, no es de extrañar, que nuestra mejor aula se encuentra a escasos cinco minutos del Centro, en plena naturaleza. Esta característica Medio Ambiental muy implantada en la juventud unido al pequeño tamaño del Centro, lo que facilita una más estrecha convivencia, hace que la relación alumnado-escuela sea muy profunda y todos los que conformamos el Centro lo vivimos como algo muy cercano y especial.

Durante estos 25 años, se han producido grandes cambios, irrumpiendo con fuerza las nuevas tecnologías y las nuevas maneras de afrontar la gestión de un Centro. En este último apartado y conscientes de la necesidad de adaptación e innovación permanente, en 1997 dimos nuestros primeros pasos encaminados a la adaptación de la gestión del Centro a los principios de la Calidad, iniciándonos con la Norma ISO 9002. Fueron tres inolvidables años de formación, guiados por los asesores de SAREKA (gracias Luis Mª, Mertxe y Rosana) y trabajando conjuntamente con otros Centros de la red (Gamarra, Zaraobe y Construcción, en sus inicios), con los que establecimos a partir de entonces una colaboración muy fructífera. Consecuencia de estos trabajos y colaboraciones, a finales del año 2000, obtuvimos la Certificación ISO 9002 concedida por AENOR. Posteriormente y mejorando la primera fase de Calidad, en el año 2003 obtuvimos la nueva Certificación ISO 9001:2000.

Como último paso y dentro de nuestro compromiso en una Gestión de Calidad, estamos inmersos en el proyecto de EFQM, con vista a obtener la Q de Plata.

Esfuerzo y dedicación son las palabras que resumen estos 25 años de historia, y que seguirán siendo nuestro principal instrumento de trabajo, aspirando a ser un referente tanto en el aspecto educativo como en el social y laboral.

El director: D. Mikel Agirre Jauregi